

1896

## Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XV-garren urtea)

## URI KONDAIRA ANDIKO BAT



**Larogei pezetako sari bat eta bitezarra  
Mondragoin irabazitako moldaera**

GIPUZKOA GAZTELAKO ERREGEREKIN MONDRAGOIKO ERRIAN ELKARTU ZAN

Gipuzkoa politeko erri guztiak, badute ere beren gloria bereziren bat, zor bat billatzen det gaur, Udalach chunchur zorrotzak, oñean daukan ospatsu batenak azaldutzea; arkitzen dalako bioleta bat belar artean bezala, mendi goitsu berde eta loretsuz ezkutatua; baña iturri mota askotakoakiñ atsegingarritua, bi ibai bizien korrontakin ureztatu edo bañatua, fabrika edo ola berri andi batekin piztua, bere duikina edo industriagatik mundu guztian ezagutua, bere azaña andiak gatik illezkortua, berak biotz biotzean daukan eliz eder eta inguruko komentu edo santutegiakin doatsutua eta azkenez bere kondairako era guztietako perlarik eder eta politenakin koroatua.

Baña; ¿zein ote da gure lurrean uri ainbesteraño zorionekoa? ¿zeñ ote da alako erri onkai edo merezimentuz jantzitakoa? ¿zein ote da aipatu nai nukean, eta oraindik isillean daukadan erri aiñ bakan, uri aiñ berezi eta apartekoa? Uri au ez da besterikan, euskaldun zintzo, garbi eta leyal beti izan dana, eta izan-

go ere dan bat baño, zeñen jatorrizko izena dan euskaldunak jarria, Arrasate; gero erdaldunak Mondragon jarri bazioten ere. Außen dan nik gaur andizkatu nai nukean euskaldun erri argia.

Außen da erri bat, zeñen lenbiziko echetegia, non zan beraren antziñatasuna gatik ezpadakigu ere, otsedagoz edo tradizioz badakifu beintzat, Gipuzkoako aurrenekoetatik bat berau dala; antziñako esaera da, amargarren eunkian, Nafarroako On Sancho Abarkaren aldian berau bazala; ark agindu zuela muruz inguratzeko eta Santa Barbarako mendichoan gaztelu bat egiteko ere, siniskera au, kondairan ezpadegu ere bear añan argiro probatua, orregatik, sinisgarri da, aipatu dan mendichoak daukan antz, taju eta irudiagatik, dalako berariz bezela egiña, menderatzeko Lenizko eta Ugarango ibarrak, gerragintzako egin bear guztietan, era guztietara ezin eta erosoago.

Segurua eta duda gabea da, erri onek antziñako denboran bere izena Arrasate zuela; baita berau zala ere, ingurumai oetan aundiena bertan ateratzen zan mearekin, bere muga barruan egiten ziran altzairu, burni eta gañerako tresnak gatik; iruditzen zuela, Echekoandre batek bezala, Leintzako ibar eder onetako buru, arik eta milla berreun eta irurogeian, On Alfonso jakintsuak, agindu arte lengo izenaren lekuan jartzeko orañ duena, zeña dan Mondragon, eta nork alchatu zuen ere, uri edo billaren mallara Bitoria-ko fuerorekin.

Baña egun au baño lenago, Gaztelako Alfonso zortzi garrenaren denboran, bi gertalditan Arrasate igo zan oso ots andiko eta gogoangarri izatera

Lenbiziko zan, Gipuzkoaren borondatezko elkartasuna Gaztelarekin egin zanean, zeñen gañean Iztueta euskaldun izkribatzalle aberats eta egokiak, dio modu onetan:

Gipuzkoaren mugapeko Alkate Jaun guztiak, batu ziran Mondragoiko Erri leyalera, beren Batzar guztiatiko andientsua egikaritzera, non erabaki zuten gogoz Nafarroari lagarik, Gaztelarekin alkartu eta pake oso betean bizi izateko.

Bereala, Batzar itzal andiko ark, mandatu balioso onekin igorri zituen Bialkiñak Alonso zortzigarren Gaztelako Erregeagana, Bitoriako ondorazeñari ustez ustekabeko albiste pozgana, rri gozo andiko onek, zabaldu zion biotza ezin geyagoraño atsegín oso bete betetan; zergatik Gipuzkoako probinzia bere alde

izatea, guztiz asko naikidatzen zeban lenagotanik ere, eta ez gichiago estura larrian arkitzen zan egun berperetan.

Errege au pozaren pozez, bera etorri zan Mondragoiko Errian arkitzen zan Batzar guztiakikora; eta emen, amodiozko naitasunaren bidez, laztandurik josi zitzayozkan alkarri adiskidetasun andian; erabakitzen zutelarik, garbiro ezen, Gipuzkoak lagundu eta serbitzatu bearko zituela leyalkiro egin-al guztian, Gaztelako Erregeak, beren premiña eta estura larrietan; eta Errege oek, gorde bearko ziozkatela Probinziari jayotzatik bere berekiak dituen oitura eta eskubide guztiak, oso ta garbi, altatsik chikarrena ere egin bage.

Fueroen juramentua, otsedagoaren erara, oraindik gaur ere Arrasate izentatzen dan leku berberean gertatu zan; non gizaldi onetaraño iraun du zutikan, arrizko gurutze batek, gertaera aiñ andi aren oroipenerako.

Bigarren gogoangarrizko gertaera Erri onen kondaira-garri izan zau, Alfonso zortzigarrenaren denboran, Nabas-etan an irabazi zuten Arrasatetarrak, beren eskudua erriko armetan, koroï batek bezela inguratzen duen katiã ederra; eta gaztelar bertsolari batek orregatik erri au alchatzen du mirariturik odeietatik gora erdarazko berso oekiñ:

«Salud, villa leal, la que un día  
De más prosperidad fuiste Arrasate,  
Salud y paz te envía  
Un extranjero vate;  
Que tu historia admiró como debiera  
Al recordar los hechos preeminentes,  
Cuando tus nobles y guerreras gentes  
Altivas levantaron la bandera,  
Y allá... en tierras lejanas,  
Arrollando las huestes musulmanas,  
Dieron á Alfonso VIII, el timbre y gloria  
Que hoy para su esplendor guarda la historia.»

Batalla gogoangarri au eman zan, milla berreun eta amabiko urtean.

Eunki bat geroago garaipen goyago ere mondragoitarrak irabazi zituzten; baña guztiz arrigarri bat Saladoko ots andiko

jazarrean, non egindako azaiña andia gatik, sekulan ill ez dedin eta beti eta beti bizi dedin bere oropena; denbora ayetan oitura zan erara jarria daukate gazteluaren señaile bat geyago, eskuduaren erdi erdian, lorerik ederren baten gisa. Errege Katolikoen kondaira gille Grazia Dei-k gertaldi arrigarri au kantatzen du ederkiro, erdarazko bertso oekin:

«Cuando Arrasate primero,  
 Por ser leal é guerrero)  
 Llamó el Rey Mondragon,  
 Donde nacen, donde son,  
 Los hombres fuertes de acero;  
 Ví un dragon inflamado,  
 Monte y castillo real,  
 Que se ganó en el Salado,  
 Con las cadenas cercado,  
 Del puerto del Muradal.»

Aurreko neurtitz oriek izan badira ere, kopiatzen eta kopiatzeh errakuntzaz beteak, emengoak daude batere okerrik gabe, Erreñuko liburutegiak On Karlos Gerra jaunák kopiatuta utsik gabeak diralako.

#### MONDRAGOIKO DUIKINDEA.

Mondragoiko duikinde edo industriaren izate eta balioaren anditasuna, aditzera ematen du garbiro, milla berreun eta irurogeita bian Alfonso amargarrenak egindako mesede eta graziak, zeñetan agindu zuen bertako mugapean ateratzen ziran meak, bertanche landu zitezela, eta ez beste lekutan, eta orretarako egin zitezkeala basoai kalterik egin gabe, bear ziran ikatz eta egurra, eta Errege berberak, milla berreun eta larogeian eman zien esku bidea gañera mondragoitarrai, Leintzako ibarreko basoakin probechatzeko, beste iñork jatorrizko esku-bideren batekin, jabetasuna probatu ezikan. Nondik ezin da obeki ezagutzen dan, erri orietako oletako duikindeak zeukan anditasuna, balio eta zabalera; eskerrak Udalach-ko mendiaren mea ugari eta motarik onenekoari, egiteko alean edo granoan alako altzairu aiñ ots andikoa Europa guztian izan zana; non

saldu oi zan zillarraren trukean eta geroago Amerikan errearen pisuan.

Onetara andizkatzen zan, antziñako erdarazko bertsoetan:

«Vencedora espada,  
de Mondragon tu acero,  
y en Toledo templada.»

#### MONDRAGOIKO ORDENANTZA BERRIAK

Meak zer moduz atera ere, zuzenbide eta neurriak ipintzeko Mondragoiko Kontzejuak, milla lareun eta ogeita amalauan, jarri zituan ordenantza guztiz ederrak; zeintzuek izan ziran ontzat eman eta indartuak Errege Gaztelako On Juan bigarrena gandik; benturaz, ezpaziran ere lenbizikoak, beiñik beiñ ziertoa da berak dirala zarrenetakoak, meatzen gañean egindako oroitza penetan, ordura arte aldeko edo zirkunstantzia guztiakin jarri gabeak beti ziralako.

Duikinde onek Mondragoiri eman zion gaur pentsatu ezin leikean balioa.

Alašen bada, milla irureun eta amabostean, bere ekindari edo prokuradoreak jarlekuak izan zituzten Burgosko kortietan; milla irureun eta larogei ta amazazpian agertu ziran lekurik gorenekoetan; Donostiaren urrengo izan ziran Getarian Fueroa juratu zanean; eta milla lareun eta berrogeita amazazpian erri onek iruditu zuen Gipuzkoako iru alderdi edo distritoen arteko buru bat; alderdi zeintzuek ziran Donostiakoa, Mondragoikoa eta Segurakoa, eta azkenez Mondragoien batu zan ere, Gipuzkoako Batzar Guztiakikoa, Fueroa berriztutzeko milla lareun eta irurogeita iruan, non alik osoen orduanche beteta bear bezela jarri zuten, berreun eta zazpi legezko lege pilla lore sortarik ederren bat bezela moldatuta.

#### MONDRAGOIK BETI GORDE DITU BERE LIBERTADEAK

Baita ere erri onek, argi egin zuen beti bere libertade onetarako iduki izan duen espirituagatik. Jakin zuen batean, Enrike bigarrena arkitzen zala etzina eta makurtua, emateko bere Jauntasuna Oñatiko On Beltran Gebarakoari, Erregek serbizio

askoren eskerrak zor ziozkalako; orduan Mondragoiko uriak bialdu zituen bere semerik argienak Erregegana, agertutzero nola Mondragoitarrak zeuzkaten ere serbiziorik andien eta bali-soenak eginda Erregeren koroari; eta etzitzayela ondo eror-tzen, orduan alako esker char eta bidegabekeriaz erantzutea, eta erregutzen ziotela arren, igaro zedilla eta ikusi zezala bere begiz Mondragoiko uriak zeukan balioaren anditasuna. Erre-gek begitarterik argienarekin errezibituta, prestutasunik andie-narekin baietza emanik, egiaztu bazuen ere bere itza, baita Mondragoiko uriak ere, zegokion eran errezibitzeko idiki zuen galtzadazko bide berri bat, Oñatian asi eta bertaraño, zeñen zati asko gaur ere oraindikan agirian daude, argiro igarten dala nola Bakubetik eta Azuela-gaiñdik igaroten zan, orregati-kan gaur ere Errege bide deitzen zayo.

Erregek ikusi zuenean bada, uri onen sendotasuna, muralla altuz dana ondo gordea, inguruko erri guzietan gañ geñeko za-la; bere gaztelu oraindik oñean zeukanarekin ainbesteraño in-dartua; utzirik alde batera On Beltranen eskariak, eman zion ari ordañez Leintzako ibarra.

Beti ta beti ziralako bada, mondragoitarrak orduko Jaun mepondar edo feudalen etsai, lagundurik beste gipuzkoatar batzuekin, milla irureun eta larogei ta zazpiari Bizkayan sartu-rik, erre zuten Martzanako Gaztelua.

Beste ainbeste egin zuten ere, Lope Ochoa Orokoa buru zute-la, beren auzoko Zaldibarko landan Oñatiko Jaunak zeukan gaz-teluarekin.

Ala ere, beste aldi batzuetan ondocho pagatu zituzten azaña oriek; milla lareun eta berrogeita zortzian, Gebarako On Pedro Belez, Oñatiko Jaun zanak, atakatzen ekin zion Mondragoiko uriari, eta armaz artu ezin zuenean, Bagillaren ogeita iruan, au da San Juan bezperan, lau kantoietatik su eman zion, eta kiskaldurik dena utzi zuen, bi eche erre gabe salbatuta baka-rrik. Au bene benetan zan aztakeriazko bear bat Gebararen al-detikan; baña onra andiko zailltasuna ere bazan mondragoita-rren partetik, zeñtzuek Oñaziñoen laguntasunaz, Aramayoko Jaun Bruton Gonzalez buru zutela, au bere semearekin batean bertan ill bazan ere, mondragoitarrak erakutsitako balore eta korajea berdinek gabea zalako.

Baña laster berriztatu zan Mondragoiko uria, eraman zuen ondamen izugarritik; eskerrak bere meatza eta olai, eta Errege Katolikoan laguntasunai, berak emandako eskubide andiak asnasa artu, eta abiatu ziran berrien berri erri giñan; eta milla lareun eta larogeita amarrean jarri zituzten ordenantza berriekin, erabaki zuten ipintzea erriko gobernamentuan pakezko eta zorionezko era berri bat, desegiñik elkarren kontra zatituta zeuzkan alderdi biak, eta danak ora bat bezela baturik, anayatasunik zintzoenean botarik betiko Ganboiñoen nola Oñaziñoen alderditasunak, aurreruntzean biziera doatsu bat egiteko, ¡zeiñ asmo ederra! Modu orretara bizitasunik andienarekin sayatu ziran beren oletan era guztietako lanbideetan, eta igo zuen uri onek alako mallara, ain denbora laburrean eze, egiten zituan jenero onak gatik, milla bosteun eta amabostean bada, irichi zuen Errege-gandik eskubidea, erri onetatik zabaltzeko altzairua, Frantziako eta Ingalaterrako erreñuetara ere. Zergatikan, Garibayk dionez, beste tokidanetan egiten zan altzairua baño obea zan, zergatik arma zarrakin berriak bi zeñ iru aldiz egin amen ere, etzuen galtzen bere gogortasuna, Milango eta beste gañetikoak bezela, burni izatera biurtuta.

Orregatik erri onek, duikinde eta merkaritzako jayotakoa iruditu arren, ez du galdu iñoiz erarik partu artu gabe justoak izan diran gerra guztietan; amazazpi garren eunkian, Españaik izan zituen gerretan ikusten dira Mondragoiko seme argidortarrak nolakoak ziran.

Emezortzi garren eunkiaren azkenetan izan zuen erri onek, iñoiz zimelduko etzayon gloria bat irabasteko zoriona.

Franziako errepublikako armada indartsu bat sartu zan Gipuzkoan, milla zazpireun eta larogeita amalauan, zeñek menderatzen zuen iya Probintziarik geyena, eta sartu berriakin parte artutako batzuek Probintziako buru baziran bezela, asmatu zuten Batzar bat egitea Getarian, eta beren deyari leyal erantzunda, ara bildu ziranak, katibu artuak izan baziran ere, Mondragoiko Alkate On José Antonio Zenika ta Bitoriak, echerik argienetako baten buru zanak, igerririk zertara etziten zan Getariako Batzarraren asmoa, ez obeditu, eta etzuen parterik ere, artu, Españairen etsayakin nastutze ezagatik; eta bai deitu zituen guztiakiko Batzar apart batera Gipuzkoa goiko amazaz-

pi erriak, oraindik frantzesik gabe zeudenak, eta ala bearrez au gertatu zan frantzesak Eibarko errian eunda amasei eche erre zituzten egunean bertan. Bildurik Batzarreak gaur Euskal-itz-jostaldiak egiten diran Mondragoiko Kontzeju eche onetan, Ekautu edo gerrako Diputazio berri bat izentatu zuten, zein konpontzen zuten, Gaytango Billafrankako kondeak, On Martin Jose Muruetakoak, eta On Ramon Gaztañaduykoak; bereala artu zituzten gerragintzarako bear ziran prestamenak zuzentzeko neurriak; iristeko bada, zerekin erantzun izango ziran premiai, borondatez izan zituzten emaitza ugarien gañetik, ezarri ziezten eskuak Elizetako zillarrerriai, erakusten zutela egin zuten guzian, argi eta garbi, beren sorterriaganako zeukaten amoriorik zintzo eta beroena.

Buru egin zuen bada, Zenika Jaunak Batzar aïñ gogoangarrietan, eta izkribatzean Errege laugarren Karlosi, erantzun zuen Egoitza edo Estaduko Ministroak bere izenean:

«Probintziako erri beren Erregeganako leyaltasunaren eza-gungarririk onenak eman zituztenak, izan bear zutela jakin eraziak agirian, Erregearentzat erakutsi zuten biotz onaren gañean eman zutelako jarraigarririk onena; baña nola ots onek sutu zezakean etsayen odola, ugarituko zirala berak arkitzen ziran errietan negargarri eta zorigaitzak, eta kulpa gabeko mendeko askok galduko zutela bizia bear baño lenago, eta uste zuela Erregeren Altasunak, egokiago zala iñillean egotea, arik eta arriskuzko egunak igaro arte, eta orduan agertuko ziola erriari, nolakoa zan mendeko leyaletatik artutako poz eta atsegiña eta noraño eldutzen zayen berak ematen zion biotzeko gozotasuna.»  
Eta ¿nola gertatu zan?... Saria izan zan gezurrezko kulpak jaso ta ayei, izenak desonratzea, balioa galdu erazitzeke gure fueroak ematen zuen eskubide indartsuari bere susterretik.... Alakochea izan da beti Gaztelar politika dontsuaren griña, ari eta leya gaiztoa.

MONDRAGOITARRAK BETI IZAN DIRA KRISTAU FEDEDUN ONAK.

Beren lenbiziko Parrokia, jaso zuten Santa Marina Patronatzat jarrita, Alday edo Agirre deitzen zayon lekuan, gaur kanposantua dagoan tokitik gertu edo laster; denbora ayetakoak



dira beste lau Elizaurreak ere Uribarriko Andra Mariakoa, Udalako San Estebangoa, San Migel Garagartzakoa, eta Santa Ageda Gesalibarkoa, laurak dira Mondragoiko mugapekoak; baña azkenengoa, Martire Santari andre ezkondu ama izatera allegatu diranak, dioten jayera edo debozioagatik, eta gañera, bere inguruko uratsak gutik, oso da otsandikoa.

Gaurko San Juan Bautista-ren Parrokia, amairu garren gizaldia baño lenago egiña da, goduen antzerako obra edo oikida ederra benetan; non milla lareun eta berrogeita zortziko suan, aldare guztiak erre ziralako, gizaldi beraren asierako itztegi edo pulpito onegarri bat oraindik oñean dago, doatsutua San Vizonte Ferrer-ek bertatik predikatu zuelako, milla lareun eta zortzian, zeñen esku-igaro lekuan irakurtzen dira letra oek: «*Diga poco y bueno.*»

Erriaren kanpoko aldetik arkitzen dira San Franziskoren Seemeen komentu bat, milla bosteun eta irurogeita emezortzian fundatua Juan Araoz ta Uriartek; gaur miserikordiako echetzat serbizioa egiten duena; Konzezioko monjena serorak fundatua, milla bosteun da amaikan, eta klausuraren azpian jarria milla seireun eta amairuan, eta San Agustingo monjena, Konzeziyokoaren denboran egiña, eta klausuraren azpian milla seireun eta amarrean ipinia.

Baziran ero beste fundazio on asko, zeñtzuek desagertu ziran; baña, ala ere, badiraute batzuek erantsirik parrokiara, zeñtzuek laguntzen duten elizkizun asko jazkizun andiarekin egiten, eta fededunen arteko premietan alkarrri kristau jainkozaleak oi duten moduan, amodio eta maitetasunik samurrenarekin bear dan bezela laguntzen ere.

FELIPE ARRESE ETA BEITIA.

